


Denbora-

1 Erosketak

Erosketa-poltsa frutaz beterik darama Ilargik. Egin duen erosketa kontuan izanda, kalkulatu zenbat diru gastatu duen.



$$\text{grapes} \times 3 + \text{banana} \times 2 + \text{pear} \times 2 =$$

$$\text{orange} \times 4 + \text{pear} \times 6 + \text{banana} \times 3 =$$

$$\text{grapes} \times 1 + \text{orange} \times 5 + \text{pear} \times 2 =$$

3 Margotu eta asmatu

Oporretarako asmoak zehazten aritu da Uxue. Marrazkia ikusita, laster igarriko duzu.


Margotu, eta ikusi zer ezkutatzend!

- 1.- Urdin argia
- 2.- Urdin ilunagoa
- 3.- Marroi argia
- 4.- Horia
- 5.- Gorria
- 6.- Berdea
- 7.- Berde argia



2 Sagu Jakintsua

Txirrindulariak buru-belarri ari dira Tourrean lanean. Ba al dakizu non egiten den lasterketa ezaguna? Eta hemen aipatzen diren gainerako itzuliak?





-pasak

Erantzunak: **1.**-2,75 euro, 2,9 euro eta 1,85 euro gastatu ditu. **2.**-Giro-Italia, Tour-Frantzia, Alentejo-Portugal eta Vuelta-Espainia. **3.**-Eguzkitakoa. **4.**-Bosgarrena. **5.**-Lehenengoa.

4 Itzalak

Bonsai txiki bat erosi du Imanolek, etxean edukitzeko. Begiratu adi-adi itzalei, eta asmatu zein den bonsaiaren itzala.



5 Puzzlea

Puzzleak amaitu ezinik ibiltzen da beti Xabat. Lagunduko al diozu falta zaion zatia bilatzen?

Jolasa


Kontuz marrazoekin!!!

Itsasoa marrazoz beterik dago. Salbu egoteko, beraz, uhartera iristea ezinbestekoa da. Non ote dago, baina? Estali begiak, eta ea nork topatzen duen uhartea.

1 Jolasten hasi aurretik, lauki bat marraztu behar da lurrean. Metro bat luze izango du laukiaren alde bakoitzak. Laukia uhartea izango da.



2 Jokalariak uhartetik 10 bat metrora kokatuko dira..



3 Begiak estali, eta uharterantz abiatuko dira jokalariak, txandaka. Euren ustez uhartera iristen direnean geratu egin beharko dute.



4 Jokalari guztiek euren lana amaitu ostean, begietako zapia kenduko dute. Uharterearen barruan dagoen jokalaria salbu egongo da.



5 Agian, ez da inor geratuko uharterearen barruan lehen partidari. Partida berriz jokatuko da orduan.